

## LEMA ONA

Euripean lokatzak zaildu egiten zuen bere ibilera. Botak lurrean itsatsita, ezin jarraitu. Blai eginda zegoen gaztea. Ibaiaren inguruko buztinarekin laprast egiten zuen behin eta berriz. Euri jasa etengabea izan zen ia bide osoan.

Ibai ertzean gora jarraituz, lortu zuen galtzada erdiestea. Behingoz oinak lokatzetik kanpo ikusteko makurtu egin zen. Botak harri gainean zituen azkenean. Bidaiaria edo itxasgizona zela erakusten zuten seinale ziren bota luze haiek. Belaunaldean sokaz lotuta zeramatzan, piraten antzera.

Eskuak belaunetan, harnasa sakon hartzeko aprobetxatu zuen. Hasperena. Kapela eta kapa bazeramatzan ere, barruraino bustita zegoen.

Begirada jasotzean, ile luzeen artetik hiruzpa lau etxola ikusi zituen. Inguruetakoz zerealez ereindako landek ogi puska bat lortzeko aukera izango zuela iragartzen zioten eta etxola batera hurbildu zen.

-Ba al da inor? -Galdetu zuen erdi zabalik zegoen atetik-.

Ezustean harrapatu zuen bertan zegoen emakumea.

-Nor da? -Atera hurbildu eta buruaz keinu bat egin zion zer nahi zuen galdetuz bezala-.

-Barkatu hausardia baina orduak daramatzat oinez euripean eta pentsatu dut, agian, atsedean har dezakedala tarte batean... -Emakumeak, mesfidati oraindik, sagardo pitxer bat, gazta eta ogi puska bat atera zituen mahaira.

-Zatoz eta eseri-. esan zion. -Hurbil zaitetz sutara ea bitartean berotzen zaren.- Nola duzu izena?

-Bital.

-Ni Melia naiz- erantzun zion etxeko andreak-.

-Nora zoaz ba?- Emakumeak etxe barruan zuen gazte hartaz zerbait gehiago jakin nahi zuen-.

-Etxera... -Esan zion samin handiz-. Duela egun bi iritsi nintzen hemendik gertu dagoen itxas-portura. Azken urteotan munduko itxasoetan ibili naiz hara eta hona- . Gazta eta ogi zati bat jaten zuen bitartean, kontatzeari ekin zion-. Hurrunekeo lurraldeak ezagutu ditut, gizakume eta animalia bitxiak, siniskera eta ohitura desberdinak. Norabide bat baino, egiteko zehatz bat daukat buruan.

-A bai?- Emakumea hain harrituta gelditu zen erantzun harekin non ez baitzekien zer gehiago galdetu. Isilunetxo baten ondoren, bidaiaria eserlekutik altxatu, sagardoari azken zurrupada bat eman eta aterantz hurbildu zen.

-Eskertzen dizut atsedean une hau eman izana. Ba al dakizu muinoko ostatuan gera naitekeen egun batzuetan?

-Bai-. Kanpora irten eta mendixka bat seinalatu zion eskuaz-. Muino horretan ostatu bat dago. Jarraitu bidea eta gurutzatu han aurrean aurkituko duzun elorritzko basoa. Etxola pare bat iragan ondoren ostatura iritsiko zara.

-Mila esker.

Bitalek aurrera ekin zion bideari, gari plantazioetatik elorritzko muinorantz jo zuen. Ezagutzen zuen bidea, urteak kanpoan bazeramatzan ere, bertako semea baitzen. Maldan gora zihoala, bidaiariak zintzilikari bat atera zuen kolkotik. Harri urdin dizdiratsu batean zizelkatutako irudia zuen, sei puntadun lore bat. Sei lore-hostodun irudi biribila.

Bidaiariak geldiune bat egin zuen zintzilikariari begira. -Harrigarria zara loretxo! .-Bakarrik bazegoen ere, atera egin zitzaion hori esatea. Zintzilikari hura altxor bat bezala zeraman. Itxasbidaia batean izandako abentura baten oroigarria zen. Hain zuzen ere, Bizantiar buruzagi batek oparitu zion, Alejandria berreskuratzeko bizantiarrei laguntza eskaintzearren. Beraz, herri oso bati laguntzearren enperadorearen esker onaren erakusgarria zen.

Baina zafiro haren balioak baino, harri bitxiak zuen irudiak zeukan liluratuta mutila. Enperadoreak azaldu zionez, bizitzaren eta unibertsoaren sorreraren irudikapena zen sei puntadun lorea. Bizitzaren iturriaren irudikapena. Hor zegoen guztiaren sorrera, bizitzaren hazia.

-Bizitzaren loreak sekretu bat dauka bere baitan-. Azaldu zion enperadoreak-. Existitzen den guztiaren iturria da. Gure gorputza eta zeruak ezagutzeko atea da. Gure herriari lagundu diozun bezala, zintzilikari honek lagun dezala zure herria.

Bidaiariari, hasieran, arraroa egiten zitzaion harri puska harek herri bati laguntzeko balio izatea. Aldi berean, sineskaitza egiten zitzaion lore hura existitzen den guztiaren iturria izatea. -Bizitzaren fruitua!- errepikatzen zuen enperadorearen hitzak gogoratu.

Harri bitxian zizelkatutako proportzio haiek hainbeste begiratuta, apurka-apurka konturatzen hasi zen eredu haiek naturan errepikatzen zirela. Argi izpietan, elur malutetan, fruituetan, erleen abarasketan eta inguruko beste edozein tokitan zeuden. Naturan lorearen patroia imitatzen zuten mila

gauza aurkitu zituen eta horretaz ohartu zenean, jakituria hori erabiltzeko beharra ikusi zuen.

Enperadore bizantziarrak gogo berotu zionez, bere sorterrira bueltatu zen, altxor harek bere herriari era batera edo bestera lagunduko ziolakoan.

Heldu zen elorri basoaren ondoren zegoen muinora, bertako ostatura. Bere sorlekua zen baina ez zegoen bere familiaren ezta bere etxolaren arrastorik. Beste toki batzuetatik etorritako gizatalde batek sekulako triskantza egin zuen herrian. Bertakoak esklabu hartu, emakumeak bortxatu, etxeak erre eta lurrak erabiltzeko eskubideak kendu zizkieten. Bitalen gurasoak hil egin zituzten nonbait sarraski haretan eta arreba eraman egin zuten, ez zuen sekula jakin nora.

Bitalek 13 urte zituen orduan eta alde egitea erabaki zuen. Horrela, itxasontzi batean sartu eta batera eta bestera ibili zen hiru urtez. Umezurtz sentitzen zen. Gainera ezin zuen jasan bere herria zapaltzeko saiakera gehiago. Babesik gabe egotearen zentzazioak eta beste herri batzuek bere lurraldean egiten zituzten erasoek atsekabetu egiten zuten.

Ezintasun hori indar handiz sentitu zuen bere herrixkara iritsi zenean. Ostatuaren leihoen kanpokaldetik begiratu zuen barrura. Ez zen inor ikusten, ez zen ezer entzuten. Atea eskuaz bultzatu eta, zentzu guztiak zorrotz, sartu zen barrura. Beheko sua ia itzalita eta hainbat pitxer eta edalontzi lurrean botata. Ilun zegoen, eta jendeak bat bateak ihes egin izan balu bezala zegoen dena. Pausoak entzun zituen. Agertu zen ostalaria.

-Arratsaldeon!-Esan zuen Bitalek.

Ostalaria ikarati zegoen eta buruaz egin zion agurra.

-Egun batzuk hemen pasatzeko asmoarekin etorri naiz baina zerbait gertatu al da?-. Ingurura begiratu zuen berriro eta bere susmoa konfirmatu zuen mahai batean daga bat sartuta ikusteak. Istiluren bat izan zen bera heldu baino lehen.

-Gaur goizean hiru zital maltzur izan dira hemen, etxalde osoa izutu dute. Hainbat abere ohostu eta dena bertan behera bota dute. Erromatar Inperioaren menpean gaudela esan didate eta prestatzeko, enperadorearen nahiak bete eta gure bizitzak hari eskaintzeko.

Bitalen ezinegona begibistakoa zen, ez zegoen prest bere herria zapaltzeko saiakera gehiago onartzeko.

-Zer nahi dute bada? -. Akabatuko gaituzte! Hau gelditu beharra dago...

Ostalariak etsipen aurpegiarekin begiratzen zion, esaten zuenari adi baina sinesgogor.

-Aizu, zu ez zara nitaz gogoratzen-. Esan zion bat batean Bitalek.

Ostalariak ezetz esan zion buruaz eta bekainak igoz.

-Aprilen semea naiz, Bital. Azken urteotan itxasoan ibili naiz eta sorterrira itzuli nahi izan dut nahiz eta gure etxea suntsitu zuten, bakarrik nago...

Ostalariak harrituta moztu zion. -Ez zaude bakarrik mutil! Zure aita bizi da oraindik!-.

Bitalek ezin zuen sinetsi ere egin ostalaria esaten ari zena. Zerua zabaldu zitzaion. Bizitzan aukera berri bat izango balu bezala.

-Non dago? Non bizi da?-. Bitalek egonarri gabe, gehiago jakin nahi zuen, hil zutela uste baitzuen.

-Hegoalderantz jo behar duzu, hartu nire zaldia eta laster izango zara han. Karabi bat dago zure aita bizi den lekutik gertu. Galde egizu karabiagatik. Baina kontuz! Erromatarrek karabiaren ugazaba egin dira eta ez da komeni eurekin arazorik izatea.

Bitalek birritan pentsatu gabe, ostalariaren eskaintza onartu zuen eta zaldia hartuta alde egin zuen.

-Eskerrik asko! Etorriko naiz berriz!-.

Bital hegoalderantz abiatu zen, bere aitarekin topo egiteko gogoak jota luze egin bazitzaion ere, laster iritsi zen karabia zegoen mendira. Bat batean erromatar talde batek gelditu egin zuen bidean. Bost zaldidun jarri zitzaizkion aurrean.

-Nora zoaz?-. Galdetu zioten.

-Familiarteko batzuk bisitatzera noa- erantzun zien Bitalek, gertatutakoaren garrantzia ez erakustearren.

-Eta nor da zure familia ba?-. Erromatarren buruzagiak.

-April, nire aita da. -Gauzak okertuko ziren susmoa hartzen hasi zen mutila.

Erromatarra hurbildu zitzaion eta aupergira begiratu zion, bere aitarekin antzekotasuna bilatuz bezala. Bitalek ia burua mugitu gabe, begiekin jarraitzen zuen erromatar buruzagiaren mugimendua. Beldurra sartu zitzaion, buruan dardara. Urduri zegoen. Zaldia ere ezin egona nabaritu zuen nonbait eta irrintzi egin zuen.

-Eta? Nondik zatoz ba?

Bitali une horretan bizitzaren hazia etorri zitzaion burura. Zafirozko zintzilikariaren irudia.

-Itxasoan izan naiz hiru urtez. Hurruneke lurraldeak ezagutu ditut, gizakume eta animalia bitxiak, siniskera eta ohitura desberdinak. Zuen kultura eta beste batzuk ere ezagutu ditut.- Kolkotik zintzilikaria atera zuen.- Begira! Ezagutu ditudan kulturetan gurtu dute irudi hau. Bizitzaren esentzia. Bizitzaren etengabeko iturria da, inguratzen gaituen guztiaren sorreraren oinarria.

Buruzagi erromatarra gehiago hurbildu zitzaion zintzilikaria ikusteko, zaldien aurpegiak ukitu ziren.

-Zintzilikari honen esanahia mezu modura ekarri dut-. Azaldu zion Bitalek-. Irudi honek erakusten duen legea da denok garela osotasun baten zati bat. Denok daukagula lekua eta denok izan behar dugula bizikide.

-Ze inozokeria ari zara esaten mutil!

-Bizitzeko eskubidea dugu denok, eta errespetua zor diegu gainerakoei. Hori izan da nire bidaietan ontzia gidatu izan duen lema. Lema ona! itxasontzia bide zuzenetik eta bidezko erabakietatik eraman duen lema.

-Denok gara dena baten zati bat orduan?-Erromatarrek barre egin zion.

-Hala da bai, eta uste dut... Eta ziur nago -zuzendu zuen Bitalek-denentzako dagoela lekua. Inor zapaldu gabe, inoren eskubideak zapuztu gabe eta desberdin pentsatzearen bizitza kendu barik.

Erromatar taldeak alde egin zuen. Bitalek ez zekien nondik atera zituen indarrak esan zituenak esateko baina lortu zuen helburua.

Aurrera egin zuen aitarekin aurkitzeko bidean. Pozik. Bat batean kolpe indartsu bat sentitu zuen bizkarrean. Minak erretzen zuen eta zalditik erori zen. Bularrera begiratu zuen, lantzaren puntak zeharkatu egin zuen. Akabo, hile gin zuten. Erromatarren taldeko kide batek lantza sartu zion traizioz lepotik.

Buruzagi erromatarrek ez zuen onartu bere menpekoak egindakoa. Bitalek sinetsarazita edo, ez zion minik egin nahi. Gertaera hura inflekzio puntu baten antzeko zerbait izan zen. Agindua eman zuten erromatarren artean Bitalen lurraldean halakorik ez errepikatzeko. Herri hartan bestelako gehiegikeriarik eta zapalketarik ez egiteko agindua eman zuten. Ordutik Aurrera errespetatu egin zituzten herria, hizkuntza, kultura ondasunak... Elkarbizitzen ikasi zuten.

Gaur egun, Bitalen sorlekuan bere hilobiaren harriak daude oraindik. Berak ekarritako mezuaren ikurra ikus daiteke hilarrian: bizitzaren hazia. Bere aitak eskainitako hilarrian semearen itxas-bidaiak zuzendu zituen lemaren ikurra zizelkatu zuen. Inoiz izan den lema onenaren ikurrak etxaldeari izena eman zion: Lema ona, gaur ezagutzen dugun Lemoa. Enperadore bizantziarrak desiratu zuen bezala, zintzilikariak Bitalen herriari lagundu

zion. Gaur ere, Bital iritsi zenetik gizaldiak pasatu ondoren, laguntzeko gaitasuna dauka mezu honen bidez: "denok gara osotasun baten zatitxo bat eta denentzako dago lekua, elkarrekin bizi behar dugu".